



# FUNTSEZKO ELKARTEAK

## BAZKIDEAK

→ **Leire Macho Esteban:** **ugazaba** da, Leria Makilak enpresaren **funtsezko partaidea**, bera gabe proiektua aurrera ateratzea ezinezkoa izango litzateke. Haren zereginen artean hauek aurkitzen dira:

- **Finantza eta inbertsio arloan** lan egingo du Mariarekin (beste ugazabarekin). Proiektuaren parterik inportanteenetariko bat da, **antolamendu ona** ez eramatekotan enpresak porrot egingo duelako. Horregatik eramango dute bi ugazabek.
- Enpresa **berritzeko ideiak** pentsatzea, horrela enpresa ez da zahartua geratuko eta **eguneratuta** egongo da.
- **Sare sozialak freskatzea** eta bertako **mezuak erantzutea**, baita e-mailletakoak ere. Horrela **bezeroekin harremanetan** egongo gara eta **enpresa ezagutzera** emango dugu.
- Helburu berdinarekin, **deiak hartuko eta egingo** ditu eta **gutuneria** kudeatuko du.
- **Erreklamazio-orriak** batuko ditu eta hauetan aurkitutako aholkuak aurrera eramateko eta kexak **konpontzeko ideiak** pentsatuko ditu. Horrela ahultasun horiekin amaituko dugu edo behintzat hobetuko ditugu.

→ **María Aliende Villasol:** **ugazaba** da, bere partaidetza gabe ezinezkoa izango lirateke **Larrialdietarako makilaren ideia** sortzea; beraz, Leire bezala, Leria Makilak enpresaren **funtsezko partaidea** da. Haren zereginen artean hauek aurkitzen dira:

- **Finantza eta inbertsio arloan** lan egitea Leirerekin (beste ugazabarekin). Proiektuaren parterik inportanteenetariko bat da, **antolamendu ona** ez eramatekotan enpresak porrot egingo duelako. Horregatik eramango dute bi ugazabek.
- Enpresa **berritzeko ideiak** pentsatzea, horrela enpresa ez da zahartua geratuko eta **eguneratuta** egongo da.
- **Publizitate kanpainak** nahiz **postaz** bidaliko ditugun **iragarkiak** diseinatzea. Bezero posible batzuek izango duten gure **lehengo zirrara** izango da; hortaz, ondo planteatua egotea ezinbestekoa da. Haien bidez lortuko dugu enpresa **ezagutzea**, **bezeroak bereganatzea** eta haiekin **kontaktuan** egotea.



- **Enpresa ezaguna** izatea lortzeko, **web orrialdea diseinatzea, saltzeko** nahiz **erakargarria** egiteko. **Halaber**, bertan utz daitezken iruzkinen **zalantzak erantzungo ditu** eta orrialdea **berriztatuko** du artikuluekin, aholkuekin... **jendea sartzea lortzeko**. Horrela, adibidez, idazten badu zahartzarori buruzko artikulua bat, gerta liteke irakurle batek horrela **enpresa ezagutzea** eta gero **erostea**.
  - Produktuak **biltegira eramango ditu** eta **paketeak osatuko ditu erosleei bidaltzeko**.
  - **Hitzaldiak** antolatuko ditu **jendea enpresa** nahiz **makila ezagutzeko**.
- **Ingeniariak**: makilaren **funtzionamendua** ezarriko dute; hau da, nola egin makila jakiteko horizontal dagoela, zuzenean 112ra deitzeko... eta hauen **ekoizpena** aurrera eramango dute.
- **Lehenengo bi hilabetetan**: **bost ingeniari** egongo dira makilaren **funtzionamendua** argitzen, hauen **zirriborroak** prestatzen, makila **hobetzen**... Horrela **proiektua aurrera** eramatea lortuko dugu; gainera, haien lana barik ezinezkoa izango lirateke makilak sortzea; beraz, **ezinbestekoak** dira.
  - **Hurrengo hilabetetan**: bakarrik **3 ingeniari** egongo dira, makilaren ekoizpen-prozesua eta piezak jadanik ezarrita egongo direlako eta hauek **ekoizteko** nahiko izango direlako. **Ezinbestekoak** izango dira beharrezkoak direlako **ekoizteko** eta proiektuan zehar **hobekuntzak** prestatzeko.
- **Correos**: **azpikontratazio** bat egingo dugu *Correosekin* (**garraio enpresarekin**), haiek arduratuko dira **bezeroei makilak heltzeaz**. Halaber, garraioan bereizita dagoen enpresa bat denez, geuk baino **azkarrago** entregatuko dituzte produktuak. *Correos* **beharrezkoa** izango da bezeroei **erosketak ailegatzeko**; izan ere, makila gehienak Internet bidez salduko ditugunez, hauek garraiatu beharko ditugu (farmazia edo hitzaldi batean saltzekotan *Correos* ez da beharrezkoa izango). Gainera, makila ugari garraiatu behar izatearen ondorioz, garraio enpresa **fidagarria** eta **trebatua** izan behar da, bezeroek **konfiantza** izateko haiengan. Igorpenak mundu osora bidaliko ditugunez, **bi tarifa** erabiliko ditugu:
- **Igorpena Espainiara edo Andorrara baldin bada**: “Itzulera paketea” tarifa erabiliko dugu. Salneurri-zerrenda honek **erraztasunak** jartzen ditu bezeroak produktua **bueltatu** nahi izatekotan, bada akatsen bat duelako edo ez delako espero zuena. **Prezioak aldakorrak** dira eta makilaren pisua 1kg baino gutxiago denez, aukera hauek daude (BEZa barne):



Igorpena probintzia berara	7'07€
Igorpena probintzia mugakideari	9'63€
Igorpena penintsulara/ Andorrara	11,17€
Igorpena Balearretara/ Ceutara/ Melillara	12'75€
Igorpena Kanarietara	17'41€

[https://www.correos.es/ss/Satellite/site/producto-pagretorno-todos\\_soluciones\\_empresariales/detalle\\_de\\_producto-sidioma=es\\_ES](https://www.correos.es/ss/Satellite/site/producto-pagretorno-todos_soluciones_empresariales/detalle_de_producto-sidioma=es_ES)

- **Igorpena beste herrialde batera baldin bada: "nazioarteko pakete ekonomikoa"** tarifa erabiliko dugu. **Prezioak aldatzen** dira zonaren arabera, eta makilaren pisua 1kg baino gutxiago denez, aukera hauek daude:

Hurbileko Europa	30'80€
Europako beste herrialdeak (aurreko zonan ez daudenak) eta Magrebko iparraldea	28'15€
Algeria, Errusia, Bosnia-Herzegovina, Islandia, Bielorrusia, Mazedonia, Serbia, Tunez, Turkia, Ukraina, Albania y Maroko	29,15€
Amerika	23'90€
Asia, Ekialde Ertaina eta Ozeania	24'45€
Austria eta Zeelanda Berria	25'45€
Afrikako beste herrialdeak	23'90€

[https://www.correos.es/ss/Satellite/site/producto-paqueeconomico\\_int\\_empresas-todos\\_soluciones\\_empresariales/detalle\\_de\\_producto-sidioma=es\\_ES](https://www.correos.es/ss/Satellite/site/producto-paqueeconomico_int_empresas-todos_soluciones_empresariales/detalle_de_producto-sidioma=es_ES)

TARIFAK:

[https://www.correos.es/ss/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername0=content-type&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue0=application%2Fpdf&blobheadervalue1=filename%3DTarifas\\_Paqueteria\\_Internacional\\_Contrato\\_2018\\_Mayo\\_2018.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1365538851910&ssbinary=true](https://www.correos.es/ss/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername0=content-type&blobheadername1=Content-Disposition&blobheadervalue0=application%2Fpdf&blobheadervalue1=filename%3DTarifas_Paqueteria_Internacional_Contrato_2018_Mayo_2018.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1365538851910&ssbinary=true)

→ **Farmaziak:** makilak web orrialdean eta hitzaldietan ez ezik, **farmazietan erosteko aukera** ere eskainiko dugu; izan ere, **farmaziei** hauek **%5eko deskontuarekin** (261'25€) **salduko diegu** gero haiek saltzeko eta bezero potentzialek **beste kanal bat** edukitzeko. Beraz, farmaziekin harremanetan jartzea daukagu eta proiektuaren **partaide garrantzitsuak** dira haien bidez mugikortasun murriztua duten pertsonak **ezagutuko gaituztelako**.



→ **Hitzaldietako elkarteak:** **bezero potentzialek** Larrialdietarako makila **ezagutzeko** eta **erosi** ahal izateko mugikortasunari eta segurtasunari, batik bat, buruzko **hitzaldiak antolatuko** ditugu. Horretarako elkarte batzuekin harremanetan egongo gara, haiekin hitzaldiak antolatzeko, haien **partaideen artean gure bezero potentzialak egongo** direlako. Hortaz, harreman hauek funtsezko elkarteak izango dira. Hauek dira hauetako **elkarte batzuk**:

- **ONCE**
- **CERMI**
- **COCEMFE**
- **PREDIF**
- **Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea:** ospitaletan **ere hitzaldiak** antolatuko ditugu, **momentuz Gurutzetan** antolatuko ditugu **gehienak**, baina denbora pasa ahala Espainiako **beste hainbat ospitaletan** egoteko helburua daukagu.

## **HORNITZAILEAK**

- **Dirua:** dirua behar dugu **inbertitzeko** eta **proiektua aurrera ateratzeko**. Horretarako bi ugazaben **urrezkiak** eta bankuan (**Sabadell bankuan**) eskatuko dugun **mailegua** dauzkagu.
- **Ez-labaingarria:** **Amazonen** erosiko dugu (*COSOOS Skateboard Grip Tape Sheet*). Beharrezkoa da eramailea **hobeto eusteko** lurrera.
- **Kautxua:** **Amazonen** erosiko dugu (*Hettich Heavy Paneles Grande Recorte de Patin EVA Autoadhesivo (1x5 Piezas) Patines Goma Adhesivo Almohadillas de Caucho 49522 para Muebles Proteger Amortiguación Ruido 200x100mm Rectángulo Negro*) eta garrantzitsua da eramailea **hobeto eusteko** lurrera.
- **Alarma, GPSa eta telefonoa:** **Amazonek** hornituko digu ere bai (*Richer-R Mini GPS Tracker, SOS Alarma Portátil*). Beharrezkoa da **112ra deia gauzatu ahal izateko**.
- **Bateria:** **Allbatteries** enpresari erosiko dizkiegu (*Batería plomo AGM NX 13-12 Cyclic 12V 13Ah F6.35*). Ezinbestekoa da makila bere **lan guztia betetzeko**, bera gabe ez baita ezer ez funtzionatzen. Gainera, **osagarri** moduan **ere** salduko ditugu.
- **Uhala:** **Amazonen** erosiko ditugu (*MagiDeal Correa de Mano de Cuero de Llavero de Pulsera Bolso Teléfono con Cerradura*). **Osagarri** bat izango da eta beharrezkoa da **makila ez urruntzeko** eramailetik.
- **Linterna:** beste **osagai** hau **Efecto Led** enpresari erosiko diegu, eramailentzat abantaila izango da ez datorrelako txarto **argia izatea** badaezpada.
- **Beste pieza batzuk:** oraindik ez dakigu zeintzuk izango diren pieza guztiak, ingeniariak ondorioztatu behar dutelako; beraz, haiek lana egiterakoan



**bilatuko ditugu** hornitzaile horiek, baina beharrezkoak izango dira **makila sortzeko** eta **bere funtzioa betetzeko**.

- **Bidaltzeko kutxak**: kartoizko kutxak **RAJAPACK** enpresari erosiko dizkiegu, horrela **bidaian produktuak babestuta** egongo dira.
- **Web orrialdea**: **COMANDIA** erabiliko dugu kanal moduan, **produktuak saldu** ahal izateko. Gainera, gaztelaniaz ez ezik, ingelesez ere dagoenez, **beste herrialdetara ailegatzeko bidea** izan liteke.